

AUTONOMO, ETE ETA MIKROENPRESEN

2021EKO ZERGA GIDA





1. JARDUERA ENPRESARIALAK ETA PROFESIONALAK HASI, ALDATU ETA AMAITZEKO IZAPIDEAK

JARDUEREN HASIERA

Jarduera hasteko, bi izapide egin behar izaten dira normalean Ogasunean: batetik, JEZe (jarduera ekonomikoen gaineko zergan) alta ematea eta, bestetik, enpresarien, profesionalen eta atxikitzailen zentsuan alta ematea. Bi izapide horiek 840 eta 036 ereduak aurkeztuz egiten dira, hurrenez hurren.

JEZe alta ematea, 840 eredu

840 ereduak jarduera batean alta ematea (hastea) adierazten du eta eredu horretan zehaztu behar dira, egitekoa den jardueraren hasiera data, deskripzioa eta jarduerarekin berarekin lotutako hainbat datu.

Epea: jarduera egiten hasiko den egunaren aurreko 10 egunen barruan aurkeztu behar da.

Zentsu aitortpena aurkeztea, 036 eredu

036 eredu, zentsu aitortpenarena, aurkezten denean enpresarien, profesionalen eta atxikitzailen zentsuan alta emateko obligazioa betetzen da. Zentsu horretan alta ematen denean, hainbat aukera egiten dira, eta hasitako jardueratik sortuko diren zerga obligazio guztiak zehazten dira: Ogasunean atxikipean sartzeko obligaziorik dagoen (langileen atxikipean, esaterako), BEZa ordaindu beharra dagoen, errenta edo sozietate zergetan tributatu den, etab... Aukera jakin batzuk egiten dira zerga bakoitzaren barruan. Foru Ogasunarekin harreman elektronikoak izatera behartuta ez daudenen kasuan, eredu honek balio du adierazteko zer komunikazio hizkuntza hobesten den eta zer modu aukeratu den administrazioaren jakinarazpenak jasotzeko (posta edo bide elektroniko).

- **Epea:** jarduera hasi aurretik edo aldi berean izan daiteke, eta jarduera hasi edo obligazioak sortu aurretik aurkeztu behar da.

- Nahitaezkoa da entitateen identifikazio fiskaleko zenbakia (**IFZ**) eskatzeko eta enpresarien, profesionalen eta atxikitzailen zentsuan alta emateko.

- **Jardueraren datu fiskalak** jasotzen ditu.

- Zerga araudian zentsuari buruz aurreikusitako **egitate eta inguruabar** oro komunikatzeko erabiltzen da.



- **Balio erantsiaren gaineko zergari** dagokionez, tresna hau baliatzen da:

- Aplikatu beharreko erregimen orokorra edo berezia komunikatzeko (erraztua, baliokidetasun erreargua, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza...).
- Erregistro hauetako edozeinetan alta emateko:
 - Hileko itzulketen erregistroan.
 - Fabrikazio zerga berezien lurraldeko erregistroan.
 - Batasun barruko operadoreen erregistroan.
- Telefono mugikorren, bideo-jokoen, ordenagailu eramangarrien eta tableta digitalen birsailtzaile zarela komunikatzeko.

- **Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari** dagokionez, eredu honetan aukeratzen da zuzeneko zenbatespeneko zein modalitate erabiliko den jarduera ekonomikoaren etekina zehazteko:

- Normala
- Erraztua

- **Sozietateen gaineko zergako** entitateen indizean alta emateko balio du.

JARDUEREN ALDAKETA

Jarduera bat aldatzen bada, 840 eredua aurkeztu beharko da JEZari dagokionez (batzuetan aldaketa egiteko, beste batzuetan alta eta baja emateko).

036 eredua (zentsu aitortpena) aurkeztu beharko da, jarduera berri bat hasten dela deklaratzeko, baldin eta zerga egoeran aldaketaren bat eragiten badu edo, pertsona fisikoak direnean, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruz tributatzeko aukera jasotzeko.

Aplikatu beharreko erregimen fiskala aldatzen bada, baina jarduera aldatu gabe, 036 eredua (zentsu aitortpena) aurkeztu beharko da, erregimen fiskalari buruzko aukerak eta uko egiteak edo aldatu den inguruabarrari buruzko komunikazioak azaltzeko.

Era berean, eredu horiek erabiliko dira zerga helbidean edo antzeko datuetan izandako aldaketen berri emateko.



JARDUEREN AMAIERA

Jarduera bat edo gehiago egiten badira eta guztiak amaitzen badira, nahikoa izango da 036 eredia (zentsu aitordena) aurkeztea, jardueretan baja ematen dela deklaratzeko, pertsona fisikoek egindako errentamendu jarduera denean izan ezik, orduan 840 eredia aurkeztu beharko baita JEZean baja emateko.

Hala ere, jardueran baja ematen den egunetik hilabete baino gehiago igarotzen bada baja aitordena aurkeztu arte, 840 ereduak ere aurkeztu beharko dira.

Jarduera amaitzea eta burutu gabeko zerga obligazioak.

Jarduera amaitzeak ez du esan nahi zerga obligazioak amaitu direnik, burutu gabe dauden obligazio guztiak bete beharko direlako. Hauek izaten dira normalean¹:

- BEZ: jarduera amaitzen den hiruhilekoari dagokion hiruhileko aitordena (300, 310 edo 370) aurkeztea (hurrengo hiruhilekoan aurkezten da).
- BEZ: jarduera amaitzen den urteari dagokion urteko aitordena (390, 391 eta 392) aurkeztea (hurrengo urtean aurkezten da).
- BEZ: noizbehinkako aitordena edo hiruhilekoari dagozkionak aurkeztea. (308, 309).
- Atxikipenak: jarduera amaitzen den hiruhilekoari dagokion atxikipena (110, 115, 123) ogasunean sartzea (hurrengo hiruhilekoan aurkezten da).
- Atxikipenak: jarduera amaitzen den urteari dagokion urteko aitordena laburtzailea (190, 180, 193) aurkeztea (hurrengo urtean aurkezten da).
- Eragiketen laburpena (347 eredia): jarduera amaitzen den urteari dagokion urteko laburpena aurkeztea (hurrengo urtean aurkezten da).
- Errenten laburpena (184 eredia): jarduera amaitzen den urteari dagokion urteko laburpena aurkeztea (hurrengo urtean aurkezten da). Errenta-esleipenaren araubideko erakundeak lortutako errentak jarri behar dira.
- PFEZ: jarduera amaitzen den urteari dagokion PFEZaren aitordena aurkeztea, jarduera ekonomikoek etekinak sartuta (hurrengo urtean aurkezten da).
- Sozietateen zerga: jarduera amaitzen den urteari dagokion sozietateen gaineko zergaren aitordena aurkeztea (hurrengo urtean aurkezten da). Sozietate zergari dagokionez, aitordena aurkezteko obligazioa ez da amaitzen harik eta sozietatea erabat likidatu arte.

¹ Epeei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus eredu bakoitzari dagokion atala.



2. ZERGAK

	PERTSONA FISIKOAK eta ERRENTEN ESLEIPEN ERREGIMENEN ENTITATEAK (SOZIEATE ZIBILA, ONDASUN ERKIDEGOA)	MERKATARITZA SOZIEATEAK (SA, SL...)
HASIERA (840-036)	BETI Aplikatu beharreko PFEZ eta BEZ erregimena aukeratu da eta, atxikitze obligazioa baldin badago, horren berri ematen da.	BETI Aplikatu beharreko BEZ erregimena aukeratu da, alta ematen da sozietate entitateen aurkibidean eta, baldin badago, atxikitze obligazioaren berri ematen da.
PFEZ	NORMALA edo ERRAZTUA	
SZ		Sozietateen gaineko zergaren erregimen gehienak ez dira aukeratu zentsu aitortzean; aitortzean bertan ematen da horri buruzko informazioa (200 eredu)
BEZ	ERREGIMEN OROKORRA ERREGIMEN BEREZIAK - erraztua - baliokidetasun errekarua - nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza - bestelakoak	ERREGIMEN OROKORRA ERREGIMEN BEREZIAK - Bestelakoak
ORDAINKETA ZATIKATUAK	BETI, Aurreko urte naturalean sarreren %50 edo gehiagoko atxikipena izan zuten profesionalak edo %70etik gorako atxikipena izan zuten nekazaritza eta abeltzaintzako zergadunak izan ezik.	
ATXIKIPENA JASAN	JARDUERA PROFESIONALAK SOILIK	
ATXIKIPENAK INGRESATU	Ogasunean atxikipenak aurkeztu eta sartzeko kasu ohikoenak izaten dira: - langileak edukitzea - lokal bat errentan hartuta edukitzea.	Kasu ohikoenak izaten dira: - langileak edukitzea - lokal bat errentan hartuta edukitzea. - dibidenduak banatzea - administrazio kontseiluko kideei ordaintzea



2.1. BEZ

BEZetik SALBUETSITAKO ERAGIKETAK

Eragiketa batzuei BEZeko salbuespena aplikatzen zaie, eta ez daukate BEZa ordaindu beharrik. Hala ere, eragiketa batzuk salbuetsita egoteak ez du esan nahi jarduera ekonomiko osoa salbuetsita dagoenik, oso ohikoa baita jarduera ekonomiko berean BEZetik salbuetsita dauden eragiketak eta ez daudenak egitea.

Oinarrizko gida moduan, normalean BEZetik salbuetsita egoten diren eragiketak bloke handi batzuetan eman daitezke. Baina kontuan izan behar da bloke bakoitzaren barruan BEZaren araudiak askoz xehetasun handiagoz zehazten dituela, eragiketa mota bakoitzerako, zein baldintza bete behar diren eragiketa salbuetsitzat jo dadin. Hona hemen BEZetik salbuetsita dauden eragiketa ohikoenak barne hartzen dituzten eragiketa bloke batzuk:

- Mediku eta osasun zerbitzuak. Oro har (eta gorde beharreko erreserbarekin), ospitaleratze zerbitzuak edo osasun zerbitzua, ospitale publikoetan, profesional medikoak eta sanitarioak, odola entregatzea, odontologia, gaixoen garraioa...
- Izaera sozialeko zerbitzuak
- Hezkuntza. Prestakuntza arautua, hizkuntzak, gidari eskolak, prestakuntza arautuko gaietako klase partikularrak...
- Kirol eta kultura zerbitzuak
- Aseguruetako eragiketak
- Eragiketa finantzarioak
- Salbuespen inmobiliarioak: eraikinen bigarren salerosketak, etxebizitza alokairua...
- Posta zerbitzuak
- Loteria eta ausazko jokoak

BEZa TRIBUTATZEKO ERREGIMENAK

- Erregimen orokorra

- Erregimen hau aplikatzen da baldin eta erregimen bereziren bat aplikatzea ez bada nahitaezkoa edo erregimen bereziren bati espresuki uko egiten bazaio.
- Tributatu duen zenbatekoa izango da, bezeroei fakturatutako jasanarazitako BEZaren eta hornitzaileek eta hartzekodunek kobratutako jasangarri BEZ kengarriaren arteko diferentzia.



- BEZetik sortutako obligazio formalak:
 - Faktura egiteko obligazioa.
 - Egindako fakturen liburua.
 - Hartutako fakturen liburua.
 - Inbertsio ondasunen erregistro liburua.
 - Batasun barruko eragiketa batzuen erregistro liburua.
- Erregimen erraztuan, baliokidetasun errekaruaren erregimenean, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezian, ondasun erabilien erregimenean edo kutzako irizpidearen arabera tributatzeko duten zergapekoek beste obligazio formal batzuk dituzte, erregimen berezi bakoitzaren berezitasunekin.
- 036 ereduaren (zentsu aitortzearen) adierazten da erregimen orokor honetan tributatzeko dela.

- Erregimen erraztua (moduluak)

- Pertsona fisikoek eta errenten esleipen erregimenean dauden entitateek (sozietate zibilak, ondasun erkidegoak, banatu gabeko herentziak...) bakarrik aplika dezakete.
- Gainera, jarduera jakin batzuk egiten dituztenek bakarrik aplika dezakete. Eskuliburu honen eranskinean ematen da zerrenda.
- Kasu horietako batean egonez gero, automatikoki aplikatzen da, baldin eta ez bazaio espresuki uko egiten erregimen honi 036 ereduaren (zentsu aitortzearen) bidez. Kasu horretan, BEZaren erregimen orokorrera pasatuko litzateke.
- Metodo honi uko egiteak 3 urteko eragina du gutxienez eta luzatuz joaten da, harik eta uko egitea errebotatzen den arte. Errebotatuz gero, erregimen berezian tributatzeko da berriro.
- Uko egitea 036 ereduaren (zentsu aitortzearen) bidez egiten da.
- Sarrerak Ogasunak modulu batzuentzat urtero finkatzen duen balioaren arabera kalkulatu dira: langile kopurua, mahaiak, metroak, makinak... Gastu eta aktibo erosketak batzuk kengarriak dira.
- Obligazio formalak:
 - Hartutako fakturen Erregistro Liburua.

- Baliokidetasun errekarua:

- Obligaziozko erregimena da BEZaren ondorioetarako txikizkako merkatariek diren pertsona fisikoentzat edo errenten esleipen erregimeneko entitateentzat.



- Ez dute BEZ aitorpenik aurkeztu behar, kasu konkretu batzuetan izan ezik.
- Obligazio formalak:
 - Hornitzaileen aurrean egiaztatu behar dute erregimen horretan tributatzen dutela.

- Kutzako irizpidearen erregimen berezia:

- Zergaren subjektu pasiboek kutxako irizpidearen erregimen berezia aplikatu ahal izango dute, baldin eta aurreko urte naturalean egin zituzten eragiketen bolumena 2.000.000 eurotik gorakoa ez bada.

- Erregimen berezi honetatik kanpora uzten dira honako eragiketa hauek:

a) Erregimen berezi hauetan sartzen direnak: erraztua, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza, baliokidetasun errenergua, inbertsioko urrea, elektronikoki emandako zerbitzuak eta entitate taldeak.

b) Ondasun eta zerbitzuen entrega hauek:

Ondasun esportazioak eta esportazioekin parekatutako eragiketak, zona franko, gordailu franko eta bestelako gordailuen ingurukoak, aduana eta zerga erregimenetakoak eta batasuneko beste estatu baterako ondasun entregak.

c) Batasun barruko ondasun eskuratzeak.

d) Eragiketaren hartzailea zergaren subjektu pasiboa denean, 84. artikuluko 2., 3. eta 4. zenbakien arabera (BEZaren legea, subjektu pasiboa inbertitzea).

e) Inportazioak eta inportazioekin parekatutako eragiketak.

f) Ondasunen autokontsumoa eta zerbitzuen autokontsumoa.

- Erregimen berezi hau aplikatzekoa den eragiketetan, kobratzen den unean sortuko da zerga ordaintzeko obligazioa, eragiketaren prezio osoa edo zati bat kobratzen denean alegia, kobratutako zenbatekoarengatik, eta kobratzen ez bada, eragiketa egin den urtearen hurrengoan sortuko da, abenduaren 31n.

Era berean, jasandako kuoten kenkaria egiteko eskubidea ere ordainketa egiten denean sortzen da, prezio osoa edo zati bat ordaintzen denean, ordaindutako zenbatekoarengatik, eta ordaintzen ez bada, eragiketa egin den urtearen hurrengoan sortuko da, abenduaren 31n. Kenkaria baliatzeko gehieneko epea 4 urtekoa da, eskubidea sortzen denetik kontatuta.

- Erregimen berezi hau aplikatzen dutenen egindako fakturretan nahitaez egin beharko da «kutxako irizpidearen erregimen berezia» aipamena.



- Beste erregimen berezi batzuk:

- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezia.
- Ondasun erabilien, arte-gaien, zaharinen eta bilduma-gaien erregimen berezia.
- Inbertsioko urrearekin egindako eragiketei aplikatzeko erregimen berezia.
- Bidaia agentzien erregimen berezia.
- Telekomunikazio, irrati edo telebista zerbitzuei eta bide elektronikoz emandakoei aplikatzen zaizkien erregimen bereziak.
- Entitate taldeen erregimen berezia.

AURKEZTU BEHARREKO EREDUAK

- 300 BEZaren hiruhileko aitorten-likidazioa. Erregimen orokorra.
- 308 Itzulketa eskaera. Baliokidetasun errearguko erregimen berezia eta noizbehinkako subjektu pasiboak.
- 309 Aldizkakoa ez den aitorten-likidazioa.
- 310 BEZaren hiru hilabeteko aitorten-likidazioa. Erregimen erraztua.
- 370 BEZaren hiru hilabeteko aitorten-likidazioa. Erregimen orokorra eta erraztua.
- 390 BEZaren urteko aitorten-likidazioa.
- 391 BEZaren urteko aitorten-likidazioa. Erregimen erraztua.
- 392 BEZaren urteko aitorten-likidazioa. Erregimen orokorra eta erregimen erraztua.

OHARRA: jarduera amaituz gero, kontuan izan hurrengo urtean 390, 391 edo 392 eredu aurkeztu beharko dela.



2.2. PFEZa

JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKINAK ZENBATESTEKO MODALITATEAK.

Jarduera ekonomikoen etekin garbia zehazteko aplikatu daitezkeen metodo bakarra zuzeneko zenbatespena da.

Bi modalitate aplikatu daitezke zuzeneko zenbatespenaren metodoaren barruan: normala eta erraztua.

- Etekin garbia kalkulatzeko era modalitate normalean eta erraztuan.

Modalitate normala

- Jarduera ekonomikoen etekinak zehazteko modalitate orokorra da.
- Kasu hauetan aplikatzen da:
 - Zergadunak ez badio adierazten Ogasunari modalitate erraztua aukeratu duela.
 - Zergadunak modalitate erraztua aplikatzeko ezarritako mugak gainditzen baditu.

Modalitate erraztua

- Espresuki hautatu behar da modalitate hau.
- Zergadunak egiten dituen jarduera guztien eragiketen bolumena 600.000 eurotik beherakoa izatea aurreko ekitaldian. Zifra hori ez da aplikatzen lehen sektoreko jarduerak direnean.
- Ez du eskubiderik ematen amortizazioak deduzitzeko, ezta narriaduratik sortutako galerak deduzitzeko ere. Trukean, sarreren eta gastu kengarrien diferentziatik %10eko gastu bakar bat deduzitzeko aukera ematen du, zergadunarentzat errazagoa izan dadin.
- Enpresarien kolektibo jakin batzuentzat arau bereziak ezarri dira gastu kengarri batzuk zehazteko. Arau bereziak dituzte:
 - Lehen sektoreak: nekazaritza, abeltzaintza, baxurako arrantza eta basogintzak.
 - Merkantzien errepide bidezko garraioa.

- Kenkariak.

- Jarduera ekonomikoen titular diren pertsona fisikoek sozietateen gaineko zergan aurreikusitako kenkari handienak balia ditzakete (Ikus zerga horri buruzko kapitulua).



PFEZen OBLIGAZIO FORMALAK

- Modalitate normala

- Merkataritzako jarduerak direnean, Merkataritza Kodeak ezarritakoaren arabera eraman beharko da kontabilitatea.
- Gutxienez, Liburu Egunkaria eta Inbentario eta Balantzeen Liburua eguneratuta eraman beharko dira.

- Modalitate erraztua

Jarraian zehazten diren erregistroak eraman behar dira (horien ordeztu ez bada Merkataritza Kodeko kontabilitatea eramaten):

- Salmenta edo sarreraren erregistro liburua
- Erosketa eta gastuen erregistro liburua
- Inbertsio ondasunen erregistro liburua.
- Kutzako liburua
- Funtz horniduren eta ordejarrien erregistro liburua (profesionalek bakarrik)

2.3. SOZietATEEN GAINEKO ZERGA

EZAUGARRIAK

Merkataritzako sozietateen (sozietate mugatuak, sozietate anonimoak, kooperatibak...) eta zergari lotutako gainerako entitateen (fundazioak, elkarteak, mutualitateak...) mozkinaren zergapetzen duen zuzeneko zerga bat da.

Sozietate zibilak, ondasun erkidegoak eta banatu gabeko herentziak ez daude zerga honi lotuta.

Merkataritzako sozietate orok du sozietateen zerga (200 ereduak) aurkezteko obligazioa, JEZeant alta emanda ez egon arren.

Portzentaje bat ordaintzen da ekitaldian lortutako mozkinaren gainean, entitate motaren arabera aldatzen dena. 2020-01-01etik aurrera hasitako zergaldietarako, portzentaje hori %24koa da izaera orokorrean, eta %20koa mikroenpresen eta enpresa txikien kasuan.

OHARRA: sozietatea desegiten bada likidatu gabe, gogoan izan behar da 200 ereduak aurkeztean jarraitu behar dela.

Sozietatea likidatzen bada, 200 ereduak aurkeztu beharko da hurrengo urtean, eta hori izango da aurkeztuko den azkeneko urtea.



GEHIEN ERABILTZEN DIREN KENKARIAK (SZ ETA PFEZ)

Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunei aplikatzen zaizkie, sozietateen gaineko zergaren nahiz PFEZaren aitortpena egiten dutenei, berdin dio zein modalitate aplikatzen duten jarduera ekonomikoen etekina deklaratzeko (normala edo erraztua).

Aktibo ez-korrante berrietan egindako inbertsioen kenkaria: ekitaldian egindako inbertsioen %10a edo %5a deduzitu ahal izango da (printzipioz muga batzuetatik gorako inbertsioa izan behar du).

Kenkaria enplegua sortzeagatik: urteko soldata gordinaren %25, 5.000 euroko mugarekin, lan kontratu mugagabearekin kontratatutako pertsona bakoitzeko. Kenkaria aplikatzeko, ezinbestekoa da soldata kontratazioaren unean indarrean dagoen lanbidearteko gutxieneko soldata baino %70 handiagoa izatea. Kontratitzen den pertsona lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetakoa bada, kenkaria bi halakoa izango da.

KONTABILITATEA SOZIETATEEN GAINEKO ZERGAN

Merkataritza Kodeak agindutakoaren arabera eraman behar dute kontabilitatea sozietateek.

Urteko kontuak batzar nagusiak onartu beharko ditu, kontuak formulatu ondorengo hiru hilabeteen barruan.

Onartu eta hilabete igaro aurretik, kontu horiek Merkataritza Erregistroan aurkeztu behar dira, publikoak izan daitezen, batzar orokorrak urteko kontuak onartzeko eta emaitzak aplikatzeko hartutako erabakiaren ziurtagiriarekin batera.

Enpresek ez dute kontuen auditoria egiteko obligaziorik, ETEen KPO eramaten badute edo balantze laburtua aurkez badezakete.



3. ATXIKIPENAK ETA ORDAINKETA ZATIKATUAK

3.1. PFEZaren ORDAINKETA ZATIKATUAK (130 EREDUA)

PFEZa aurreratzea da. Horrela, hiru hilabetetik behin diru sarrera bat egiten da Ogasunean, gero deskontatzeko zerga deklaratzeko denean.

Lehen aipatutako zuzeneko zenbatespenaren metodoko modalitate guztietan aplika daiteke.

- Oro har, azken-aurreko urteko etekinaren %5 ordaintzen da, azken aurreko urte horretan egindako atxikipenen eta konturako sarreraren %25 gutxitua.
- Azken-aurreko urtean jarduerarik egin ez bada edo etekin garbia ez bada positiboa izan, hiruhilekoan izandako salmenta edo sarrera bolumenaren %1 ordainduko da, betiere hiruhilekoan zehar egindako atxikipenak eta konturako sarrerak kenduta.
- Jarduera hasten den ekitaldian, hiruhilekoan izandako salmenta edo sarrera bolumenaren %1 ordainduko da.

3.2. SOZIETATE ZERGAREN ORDAINKETA ZATIKATUAK

2020-01-01etik aurrera hasitako zergaldietarako, derrigorrezkoa da sozietate zergan ordainketa zatikatuak egitea. Hala ere, entitateak mikroenpresak edo enpresa txikiak direnean, ez daude horretara behartuta.

3.3. ATXIKIPENA JASATEKO OBLIGAZIOA (PFEZa)

Jarduera ekonomiko jakin batzuk egiten dituztenek atxikipena jasan behar dute beste enpresari edo profesional batzuegandik kobratzen dutenean.

Obligazio hori gauzatzeko modua fakturaren bitartez izaten da. Horrela, zergadunak fakturan adieraziko du atxikipena jasan behar duela, eta bezeroak zuzenean ordainduko dio fakturaren zenbatekoa, atxikipenaren zatia kenduta, eta atxikipena zuzenean sartuko du Ogasunean. Hala ere BEZaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezira bildutako titularrak direnean, bezeroak egin beharko du jasotako ondasun eta zerbitzuen ordainagiria eta ordainagiri horretan zehaztu beharko du, besteak beste, egindako atxikipena.

Horrela aplikatutako atxikipena jarduera egiten duenaren PFEZetik deskontatuko da gero, urte horri dagokion errenta aitortpena egiten duenean.

Hainbat talde dira atxikipena jasan behar dutenak:

Profesionalak

Oro har, fakturaren zenbatekoaren %15.

Dena den, atxikipena %7 izango da jarduera hasten den lehenengo hiru urtetan, eta oso zehatzak diren jarduera profesional jakin batzuetan.



Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak

- Txerri gizentze eta hegazti hazkuntzako abeltzaintza jarduerak: fakturaren zenbatekoaren %1.
- Nekazaritzako jarduerak eta abeltzaintzako gainerako jarduerak: fakturaren zenbatekoaren %2.
- Basozaintzako jarduerak: fakturaren zenbatekoaren %2.

3.4. ATXIKITZEKO ETA ATXIKIPENEN AITORPENAK AURKEZTEKO OBLIGAZIOA (PFEZ ETA SZ)

Honako kasu hauetan dago ordaindu beharreko zenbatekoaren zati bat atxikitzeko obligazioa:

Langile enplegatuen (PFEZ eta SZ)

Atxikitze portzentajeen taularen arabera, urteko ordainsariak eta seme-alaba kopurua kontuan hartuta. Alabaina, urtebetetik beherako kontratuen kasuan, gutxieneko atxikipena %2 da.

Inguruabar hori espresuki adierazi beharko da zentsu aitorpenean (036 ereduan).

Errentamenduen atxikipena (PFEZ ETA SZ)

Errentan hartutako hiri ondasun higiezinak jarduera bat egiteko erabiltzen denean, errentariak errentamenduen %19 atxiki beharko dio errentatzaileari, kasu hauetan izan ezik:

- Enpresak enplegutuentzako errentan hartutako etxebizitzak direnean.
- Ordaintzen den errenta urtean 900 eurotik gorakoa ez denean.
- Errentatzailea JEZe an alta emanda dagoenean 861 ondasun higiezin errentamenduko epigrafeetakoren batean eta erretan emandako finka guztien balio katastrala zifra hauek baino handiagoa denean:
 - 1.502.525 euro etxebizitzak badira.
 - 858.585 euro lokal industrialak edo bestelakoak badira.

Negoio errentariak %19 atxiki beharko dute errentatzaileari ordaindutako kontraprestaziotik.

Inguruabar hori espresuki adierazi beharko da zentsu aitorpenean (036 ereduan).

Dibidenduak banatzeagatiko atxikipenak (SZ)

Era berean, bazkideei dibidenduak banatzen dizkieten enpresek, dibidenduen %19 atxikitzeko obligazioa izango dute.



ATXIKIPENEN EREDUAK ETA INFORMAZIOA EMATEKOAK.

Hiruhileko atxikipenen ereduak.

Hiruhilekoan zehar egindako atxikipenak ogasunean sartzeko hiruhileko ereduak:

- 110: Langileen eta profesionalen atxikipenak.
- 115: Kapital higiezinaren atxikipenak.
- 123: Kapital higigarriaren atxikipenak: dibidenduak.

Epeak: hilaren 25ean, urtarrilean, apirilean, uztailean eta urrian.

Atxikipenen urteko laburpena

Urtean zehar egindako atxikipenen informazioa emateko ereduak

- 190: Langileen eta profesionalen atxikipenen urteko laburpena.
- 180: Kapital higiezinaren atxikipenen urteko laburpena.
- 193: Kapital higigarriaren atxikipenen urteko laburpena: dibidenduak.

Epea: Urtero, urtarrilaren 1etik 30era bitartean, aurreko urtean ordaindutako errentei dagokienez.

OHARRA: jarduera amaituz gero, kontuan izan hurrengo urtean ere aurkeztu beharko dela.

347: Hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitortpena

Hornitzaile edo bezeroekin egindako salerosketak deklaratzeko eredu informatiboa, hornitzaile edo bezero horietako bakoitzarekin urtean zehar egindako salerosketak, eragiketa guztiak batuta, 3.005,06 eurotik gorakoan direnean.

Epea: urtero, otsailean, aurreko urtean egindako eragiketei buruz.

OHARRA: jarduera amaituz gero, gogoan izan jarduera amaitu arte egindako eragiketak ekitaldi horri dagokion 347 ereduan deklaratu behar direla, eta eredu hori hurrengo urtean aurkeztuko dela.



4. TRAMITAZIO TELEMATIKOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak zerbitzu telematikoak eskaintzen ditu herritar guztientzat oro har, baina nahitaez erabili beharrekoak direnak hurrengo apartatuan zehazten diren baldintzak betetzen dituztenentzat.

Zerbitzu telematikoetan sartzeko, norberaren identitatea frogatu behar da "Identifikazio telematiko" apartatuan zehazten diren moduetako baten bidez, edo hirugarren bati eman dakioket baimena ordezkari gisa jardun dezan.

Atari hauen bidez sar daiteke Interneten eskaintzen diren zerbitzuetan:

- Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunea: <http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna>.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa: <https://egoitza.gipuzkoa.eus>.
- Internet bidezko zerbitzu eta tramiteen ataria: Gipuzkoataria. <http://www.gipuzkoa.eus/ataria> webgunetik du sarbidea.

Sarbide horien bitartez, segurtasun, erosotasun eta legezko balio osoz egin daitezke hainbat eta hainbat eragiketa, besteak beste:

- Ordainketak egin eta ordainketak geroratzea eta zatikatzea eskatu.
- Informazio pertsonalizatua kontsultatu, ordainketak, fakturak, aurkeztutako aitortpenak, itzulketen egoera, etab. ikusteko.
- Ziurtagiriak eskatu.
- Idazkiak aurkeztu erregistro elektronikoaren bidez.

Bestalde, <https://zergabidea.gipuzkoa.eus> helbidean, Zergabidea plataforman sartu daitezke aitortpenak eta idatziak prestatu eta aurkezteko. Hodeian dagoenez, plataforma berri hori ez da instalatu behar, eta aukera ematen du bai aitortpenen zirriborroak prestatzeko bai aitortpen horiek aurkezteko. Orobat, haren bitartez, posible da zerga kudeaketako zerbitzuetara zuzendutako edozein idazki mota aurkeztea (eskaerak, errekurtsioak, alegazioak, errekerimenduen erantzuna...). Pixkanaka-pixkanaka, zerga eredu guztiak sartuko dira plataforma berrian. Gainera, zerbitzuak eta tramiteak internet bidez egiteko ataritik ere (lehen aipatu dugun Gipuzkoataritik) Zergabidean sartu daitezke.



AITORPENAK TELEMATIKOKI AURKEZTEKO OBLIGAZIOA

2017ko urriaren 2tik aurrera, jarraian aipatzen diren zergapekoak behartuta daude bitarteko elektronikoak erabiltzera bai zerga alorreko tramite eta komunikazioak egiteko (aitorpenak aurkeztea barne), bai komunikazio eta jakinarazpenak jasotzeko:

- Pertsona juridikoak.
- Nortasun juridikorik gabeko entitateak.
- Diharduten lanbidean jarduteko elkargo bateko kide izan behar dutenak, jarduera hori dela-eta administrazio publikoekin egin behar dituzten izapide eta jarduketetarako. Kolektibo horretakotzat joko dira beti notarioak, jabetzaren erregistratzaileak eta merkataritza-erregistratzaileak.
- Administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartua dagoen interesdun baten ordezkari direnak.
- Administrazio publikoetako enplegatuek enplegatu publiko izateagatik administrazioekin egiten dituzten izapide eta jarduketetarako, administrazio bakoitzak erregelamenduz zehazten duen eran.
- Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunak, establezimendu iraunkor bidez jarduten dutenean, eta, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga arautzen duen abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauak 24.2 eta 38. artikuluetan aipatzen dituen kasuetan daudenean.
- Ordezkari profesional diren pertsonak edo entitateak, beren izenean zein haien ordezkatuenean jarduten dutenean, baita ordezkatu horiek aurreko apartatuetan sartuta ez daudenean ere.

IDENTIFIKAZIO TELEMATIKOA

Herritarrek Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuekin ezartzen dituzten harremanetan beren burua identifikatzeko, bi bide erabil ditzakete: pasahitz operatiboa edo sinadura elektronikoa balioztatua.

Pasahitz operatiboa:

- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bakarrik erlazionatzeko balio du (desagertzen ari da).

Sinadura elektronikoa balioztatua:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du sinadura elektronikoa onartzen.
- Besteak beste, ziurtagiri digital hauek onartzen dira:
 - Nortasun agiri elektronikoa (Gobernuaren Ordezkariordetzan jaulkitzen dute)



- B@kq (besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundian eskatu daiteke)
 - IZENPErenak (harremanetarako telefonoa: 900 840 123)
 - CAMERFIRMArenak
 - Moneta eta Zigiluen Fabrika Nazionala (Fabrica Nacional de Moneda y Timbre).
- Aipaturikoez gain, beste ziurtagiri digital batzuk ere onartzen dira. Ondorengo helbidean, zerrenda osoa jaso da: <https://www9.gipuzkoa.eus/WAS/HACI/WATGipuzkoatariaWEB/isps/pops/pops/popupCertificados.jsp>.

ZERBITZUAK ETA TRAMITEAK INTERNET BIDEZ. SARTZEKO ADIBIDEAK

Gipuzkoataria internet bidezko zerbitzu eta tramiteen ataria erabilita era askotako eragiketak egin daitezke.

Pasahitz operatiboa edo sinadura elektronikoa balioztatua erabiliz sartu daiteke atarian, lehenago ikusi dugunez.

The image shows a composite of three panels from the Gipuzkoataria website. The left panel, titled 'Tramiteak eta zerbitzuak IDENTIFIKAZIOAREKIN', contains the 'GAKO OPERATIBOA' section with a numeric keypad and a 'SARTU' button. The middle panel, titled 'ZIURTAGIRIA, BAKQ ETA BAK', lists digital certificate options and includes a 'SARTU' button. The right panel, titled 'Tramiteak eta zerbitzuak IDENTIFIKAZIORIK GABE', features a 'SARTU' button and a 'Laguntza behar duzu?' section with links for 'Bak', 'BakQ', 'Profesionalak hodeian', 'Idazki Desktop', and 'Arazoak identifikatzerakoan?'.



Hona hemen gehien erabiltzen diren tramiteak:

Zerga aitortzen aurkezpena

Gipuzkoatariaren barruan zaudela, “Ogasuna eta Finantzak” hautatu behar da.

Ondoren, “zerga aitortzenak” atalean, aukeratu “aitortzen telematikoak” tramitea, eta egin morroiak esaten dizuna.

Zerbitzu bilatzailea

Testu bidezkoa **Sail bidezkoa** Gogokoak (0)

- ⊕ Diputatu Nagusia
- ⊕ Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea
- ⊕ Ingurumena eta Obra Hidraulikoak
- ⊕ Gobernantza
- ⊕ Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa
- ⊖ **Ogasuna eta Finantzak**
 - ☆ Jakinarazpen eta komunikazioen postontzia
 - ☆ **BIH - Kontsultak eta formularioak**
 - ☆ **BEZ 391 Itzulketak - Hitzordua**
 - ☆ **SILICIE - Kontsultak eta Formularioak**
 - ☆ Kontuen titulartasun eta baimenak
 - ☆ **Harremanetan jartzeko datuen kontsulta eta aldaketa**
 - ☆ Zerga informazioa
 - ⊕ Alegazioak eta errekurso administratiboak
 - ⊕ Ziurtagiriak
 - ⊖ **Zerga aitortzenak**
 - ☆ Zergabidea
 - ☆ **Xingolak - Marka fiskalen harrera**
 - ☆ Aitortzen kontsulta
 - ☆ **Aitortzen telematikoak**
 - ☆ Sozietateak - Estatuko ereduak
 - ☆ Errenta - Autolikidazio proposamena
 - ☆ ZHTSZ itzulketa (osasun zentimoa)
 - ⊕ Informazioa eta laguntza
 - ⊕ Zorren ordainketa
 - ⊕ Erregistroak eta erroldak
 - ⊕ Komunikazioak, eskaerak eta errekerimenduen erantzunak



Jakinarazpen elektroniko postontzia

Postontzian sartzeko, “Ogasuna eta Finantzak” aukeratu behar duzu eta “Jakinarazpen elektroniko postontzia” hautatu.

Postontzira jakinarazpen elektroniko bat bidali zaizula Ogasunak jakinarazi diezazun, garrantzi handikoa da helbide elektroniko baliodun bat ematea.

Zerbitzu bilatzailea

Testu bidezkoa **Sail bidezkoa** Gogokoak (0)

- ⊕ Diputatu Nagusia
- ⊕ Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea
- ⊕ Ingurumena eta Obra Hidraulikoak
- ⊕ Gobernantza
- ⊕ Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa
- ⊖ **Ogasuna eta Finantzak**
- ☆ Jakinarazpen eta komunikazioen postontzia
- ☆ **BIH - Kontsultak eta formularioak**
- ☆ **BEZ 391 Itzulketak - Hitzordua**
- ☆ **SILICIE - Kontsultak eta Formularioak**
- ☆ Kontuen titulartasun eta baimenak
- ☆ **Harremanetan jartzeko datuen kontsulta eta aldaketa**
- ☆ Zerga informazioa
- ⊕ Alegazioak eta errekurtsu administratiboak
- ⊕ Ziurtagiriak
- ⊕ Zerga aitortpenak
- ⊕ Informazioa eta laguntza
- ⊕ Zorren ordainketa
- ⊕ Erregistroak eta erroldak
- ⊕ Komunikazioak, eskaerak eta errekerimenduen erantzunak
- ⊕ Komunikazioa: Konkurtsoak eta Konkurtso bitartekariak
- ⊕ TicketBAI
- ⊕ Bide Azpiegiturak
- ⊕ Gizarte Politikak
- ⊕ Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirola
- ⊕ Hainbat departamenturen zerbitzu erkideak



Zerga zorren ordainketa

Atal honetan bi tramite dira nagusiak: “Gerorapen eta zatikapenak” eta “Nire zorrak”.

“Gerorapen eta zatikapenak” tramitean, posible da zor baten ordainketa geroratzea edo zatikatzea.

“Nire zorrak” tramitearen bitartez, zor baten ziurtagiria eskura daiteke, baita zorra ordaindu ere:

- Ordainketa-pasabidez
- Ordainketa-gutuna inprimatuz

Zerbitzu bilatzailea

Testu bidezkoa **Sail bidezkoa** Gogokoak (0)

- ⊕ Diputatu Nagusia
- ⊕ Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea
- ⊕ Ingurumena eta Obra Hidraulikoak
- ⊕ Gobernantza
- ⊕ Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa
- ⊖ Ogasuna eta Finantzak
 - ☆ Jakinarazpen eta komunikazioen postontzia
 - ☆ **BIH - Kontsultak eta formularioak**
 - ☆ **BEZ 391 Itzulketak - Hitzordua**
 - ☆ **SILICIE - Kontsultak eta Formularioak**
 - ☆ Kontuen titulartasun eta baimenak
 - ☆ **Harremanetan jartzeko datuen kontsulta eta aldaketa**
 - ☆ Zerga informazioa
 - ⊕ Alegazioak eta errekurso administratiboak
 - ⊕ Ziurtagiriak
 - ⊕ Zerga aitortpenak
 - ⊕ Informazioa eta laguntza
 - ⊖ Zorren ordainketa
 - ☆ Enbargatutako ondasun eta eskubideak ordezkapena
 - ☆ Gerorapen eta zatikapenak
 - ☆ Nire zorrak
 - ⊕ Erregistroak eta erroldak
 - ⊕ Komunikazioak, eskaerak eta errekerimenduen erantzunak
 - ⊕ Komunikazioa: Konkurtsoak eta Konkurtso bitartekariak
 - ⊕ TicketBAI
- ⊕ Bide Azpiegiturak
- ⊕ Gizarte Politikak



Erregistro elektronikoa

Harreman horiek telematikoki izateko berariazko tramiterik ez dagoenean tramite hau erabili beharko duzu.

Zerbitzu bilatzailea

Testu bidezkoa	Sail bidezkoa	Gogokoak (0)
----------------	----------------------	--------------

- ⊕ Diputatu Nagusia
- ⊕ Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea
- ⊕ Ingurumena eta Obra Hidraulikoak
- ⊕ Gobernantza
- ⊕ Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa
- ⊖ Ogasuna eta Finantzak
 - ☆ Jakinarazpen eta komunikazioen postontzia
 - ☆ **BIH - Kontsultak eta formularioak**
 - ☆ **BEZ 391 Itzulketak - Hitzordua**
 - ☆ **SILICIE - Kontsultak eta Formularioak**
 - ☆ Kontuen titulartasun eta baimenak
 - ☆ **Harremanetan jartzeko datuen kontsulta eta aldaketa**
 - ☆ Zerga informazioa
 - ⊕ Alegazioak eta errekurtsu administratiboak
 - ⊕ Ziurtagiriak
 - ⊕ Zerga aitopenak
 - ⊕ Informazioa eta laguntza
 - ⊕ Zorren ordainketa
 - ⊖ Erregistroak eta erroldak
 - ☆ Erregistro Elektronikoa - Ogasun eta Finantzak
 - ☆ Fakturazio erregistroak: Alta
 - ☆ Fakturazio erregistroak: Baja
 - ☆ 030 ereduak: datu pertsonalak eta harremanetarakoak
 - ⊕ Komunikazioak, eskaerak eta errekerimenduen erantzunak
 - ⊕ Komunikazioa: Konkurtsoak eta Konkurtso bitartekariak
 - ⊕ TicketBAI
- ⊕ Bide Azpiegiturak



Komunikazioak, eskaerak eta errekerimenduen erantzunak

Eragiketa jakin batzuetarako, Administrazioarekin telematikoki harremanetan jartzeko tramite espezifikoa badago, tramite hori erabili beharko da.

Testu bidezkoa **Sail bidezkoa** Gogokoak (0)

- ⊕ Diputatu Nagusia
- ⊕ Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirola
- ⊕ Gobernantza
- ⊕ Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea
- ⊕ Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa
- ⊖ Ogasuna eta Finantzak
 - ☆ Jakinarazpen eta komunikazioen postontzia
 - ☆ **BIH - Kontsultak eta formularioak**
 - ☆ **Harremanetan jartzeko datuen kontsulta eta aldaketa**
 - ☆ Zerga informazioa
 - ⊕ Alegazioak eta errekurso administratiboak
 - ⊕ Ziurtagiriak
 - ⊕ Zerga aitortpenak
 - ⊕ Informazioa eta laguntza
 - ⊕ Zorren ordainketa
 - ⊕ Erregistroak eta erroldak
- ⊖ **Komunikazioak, eskaerak eta errekerimenduen erantzunak**
 - ☆ **Kontsultak eta iradokizunak (Gertubide)**
 - ☆ EBko egoiliarrei hautazko araubidea aplikatzeko eskaera
 - ☆ Ikuskaritza - Informazio errekerimenduen erantzuna
 - ☆ Udal zergen banku helbideraketa
 - ☆ Informazio errekerimenduen erantzuna
 - ☆ Aitorpena ez aurkezteagatik errekerimenduen erantzuna
 - ☆ Aurkeztutako aitorpena zuzentzeko eskaera
 - ☆ Entitateen aurkibidean alta berriro emateko eskaera
 - ☆ Zerga berezietako baimen eskaerak
 - ☆ Zerga berezietako erregistroan izena emateko eskaera
- ⊕ Bide Azpiegiturak
- ⊕ Gizarte Politikak



ORDEZKARIEN ZENTSUAN IZENA EMATEA

Ordezkarien zentsuan jasotzen dira pertsona batzuek (ordezkatuek) beste pertsona batzuei (ordezkariei) ematen dieten baimena, ahalmen batzuekin jardun dezaten haien izenean Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuen aurrean.

Beraz, Zentsu horretan inskribatuta dagoen ordezkariak ez du ordezkaritza egiaztatu beharrik izango Diputazioan edozein izapide egin behar duen bakoitzean bere ordezkatuaren izenean.

Ordezkariak bere borondatez jardun dezake, edo legeak behartuta edo, kasua denean, arlo horretako profesional gisa. Ordezkariak nahitaez eskatu beharko du alta ematea berari dagokion ordezkari zentsuan, Gipuzkoataria Interneteko zerbitzu eta izapideen atariaren bidez. Legezko ordezkaria bada, ordezkatuak ere eskatu ahalgo izango du legezko ordezkarien zentsuan alta ematea.



5. ZERGA EGUTEGIA

OHARRA: epea larunbat, igande edo jai egunean amaitzen bada, hurrengo lehen egun baliodunera pasako da. [Zerga egutegia](#)

Data	Zerga edo Kontzeptua	Eredua	Epealdia
Urtarrila 1 - 25	Langileen eta profesionalen atxikipenak	110	4. hiruh.
	Kapital higiezinaren atxikipenak	115	4. hiruh.
	Kapital higigarriaren atxikipenak	123	4. hiruh.
Urtarrila 1 – otsaila 1	Aurreko ekitaldiko langileen eta profesionalen atxikipenen urteko laburpena	190	Urtero
	Aurreko ekitaldiko kapital higiezinaren atxikipenen urteko laburpena.	180	Urtero
	Aurreko ekitaldiko kapital higigarriaren atxikipenen urteko laburpena	193	Urtero
	BEZ erregimen orokorra, urteko laburpena	390	Urtero
	BEZ erregimen erraztua, urteko laburpena	391	Urtero
	BEZ erregimen orokorra eta erregimen erraztua, urteko laburpena. Hiruhileko ait.	392	Urtero
	Baliokidetasun errekaruaren erregimen bereziaren itzulketa eskaera Hiruhilekoa	308	4. hiruh.
	Likidazio ez aldizkakoa – Aitorpena hiru hilean behin*	309	4. hiruh.
Urtarrila 1 - otsaila 10	PFEZ, jarduera ekonomikoak, Ordainketa zatikatua	130	4. hiruh.
Otsaila – martxo 1	Hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitorpena	347	Urtero
Apirila 1 - 25	Langileen eta profesionalen atxikipenak	110	1. hiruh.
	Kapital higiezinaren atxikipenak	115	1. hiruh.
	Kapital higigarriaren atxikipenak	123	1. hiruh.
	BEZ erregimen orokorra – Hiru hilabeteko aitorpena	300	1. hiruh.
	BEZ erregimen erraztua – Hiru hilabeteko aitorpena	310	1. hiruh.
	BEZ erregimen orokorra eta erregimen erraztua – Hiru hilabeteko aitorpena	370	1. hiruh.
	Baliokidetasun errekaruaren erreg. bereziaren itzulketa eskaera – Hiru hilabetekoa	308	1. hiruh.
Likidazio ez aldizkakoa – Aitorpena hiru hilean behin*	309	1. hiruh.	
Apirila 1 – maiatza 10	PFEZ, jarduera ekonomikoak, Ordainketa zatikatua	130	1. hiruh.
Apirila 15 – ekaina 30**	PFEZ - Urteko aitorpena	109	Urtero
Uztaila 1 - 26	Sozietate zerga	200	Urtero
Uztaila 1 - 26	Langileen eta profesionalen atxikipenak	110	2. hiruh.
	Kapital higiezinaren atxikipenak	115	2. hiruh.
	Kapital higigarriaren atxikipenak	123	2. hiruh.
	Ordainketa zatikatua sozietate zergan	203	Urtero
	BEZ erregimen orokorra – Hiru hilabeteko aitorpena	300	2. hiruh.
	BEZ erregimen erraztua – Hiru hilabeteko aitorpena	310	2. hiruh.
	BEZ erregimen orokorra eta erregimen erraztua – Hiru hilabeteko aitorpena	370	2. hiruh.
	Baliokidetasun errekaruaren erreg. bereziaren itzulketa eskaera – Hiru hilabetekoa	308	2. hiruh.
Likidazio ez aldizkakoa – Aitorpena hiru hilean behin*	309	2. hiruh.	
Uztaila 1 – abuztua 10	PFEZ, jarduera ekonomikoak, Ordainketa zatikatua	130	2. hiruh.
Urria 1 - 25	Langileen eta profesionalen atxikipenak	110	3. hiruh.
	Kapital higiezinaren atxikipenak	115	3. hiruh.
	Kapital higigarriaren atxikipenak	123	3. hiruh.
	Sozietate zerga – Ordainketa zatikatuak	203	Urtero
	BEZ erregimen orokorra – Hiru hilabeteko aitorpena	300	3. hiruh.
	BEZ erregimen erraztua – Hiru hilabeteko aitorpena	310	3. hiruh.
	BEZ erregimen orokorra eta erregimen erraztua – Hiru hilabeteko aitorpena	370	3. hiruh.
	Baliokidetasun errekaruaren erreg. bereziaren itzulketa eskaera – Hiru hilabetekoa	308	3. hiruh.
Likidazio ez aldizkakoa – Aitorpena hiru hilean behin*	309	3. hiruh.	
Urria 1 – azaroa 10	PFEZ, jarduera ekonomikoak, Ordainketa zatikatua	130	3. hiruh.
Azaroa 10**	PFEZ - Urteko aitorpena (ordaintzeko 2. epearen kargua)	-	-

* Kasu batzuetan, BEZaren 308 eta 309 aitorpen-likidazioak aurkezteko hogeita hamar egun naturaleko epea dago.

** Epe hau urtero aldatzen denez, data hauek gutxi goraberakoak dira.



ERANSKINA: BEZeAN ERREGIMEN ERRAZTUA AUKERA DEZAKETEN JARDUEREN ZERRENDA

JEZa	JARDUERA EKONOMIKOA ERRAZTUAN (BEZa)
0 saila	Abeltzaintza independentea.
	Abereak hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzua.
	Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezian salbuetsita dauden eta nekazari edo abeltzainek egiten dituzten bestelako lan, zerbitzu eta jarduera osagarriak.
	Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezian salbuetsita dauden edo biltzen ez diren basogintzako jardueren titularrek egindako bestelako lan, zerbitzu eta jarduera osagarriak.
	Partzuergo erregimenean garatutako nekazaritzako jardueretan lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.
	Partzuergo erregimenean egiten diren basogintzako jardueretan lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.
	Produktu naturalak, landareetakoak edo animalietakoak eraldatu, prestatu edo manufacturatzeko prozesuak, Jarduera Ekonomikoen Zergaren Tarifetan industria jardueri dagokien epigrafe batean alta behar dutenak eta produktu natural horiek lortzen diren ustiapenen titularrek egiten dituztenak.
419.1	Ogi eta opilgintza.
419.2	Opilgintza, pastelgintza eta gailtagintza.
419.3	Ore frijituak egiteko industria.
423.9	Patata frijituak, krispetak eta antzekoak egitea.
642.1, 2, 3	Haragiaren txikizkako merkatariek txarkuteriako produktuak egitea.
642.5	Oilaskoak erretzeagatik 642.5 epigrafean matrikulatutako txikizkako merkataria.
644.1	Ogiaren, pastelgintzaren, gozogintzaren eta antzekoen eta esnearen eta esnekien txikizkako merkataritza.
644.2	Ogia, ogi bereziak eta opilak saltzea.
644.3	Pastel, opil eta gozoen txikizkako merkataritza.
644.6	Estalgarri edo betegarriekin nahiz gabe egindako ore frijitu, patata frijitu, zizka-mizka, fruitu lehor, gozoki, txokolatetzko prestakin eta edari freskagarrien txikizkako merkataritza.
647.1	Era guztietako elikagaien eta edarien txikizkako salmenta, saltzailearen establezimenduetan, loteria saltzeko zerbitzuagatik.
647.2 eta 3	Era guztietako elikagaien eta edarien txikizkako salmenta autozerbitzuan edo erregimen mistoan, establezimenduaren saltokiak 399 metro karratutik behera dituenetan, loteria saltzeko zerbitzuagatik.
652.2 eta 3	Perfumeria eta kosmetikako produktuen eta norberaren garbiketako txikizkako merkataritza; drogeria, perfumeria eta kosmetikako gai, garbigai, pintura, berniz, disolbagarri, paper, dekorazioko produktu eta produktu kimikoen txikizkako merkataritza, loteria saltzeko zerbitzuagatik.
653.2	Material eta aparailu elektriko, elektronik, etxeresna elektriko eta elektrikoa ez den energiaren eragindako bestelako etxeko erabilerrako aparailuen txikizkako merkataritza, bai eta sukaldeko altzariena ere.
653.4 eta 5	Eraikuntzako material, saneamenduko artikulua eta altzari, ate, leiho, pertsiana eta abarren txikizkako merkataritza.
654.2	Lurreko ibilgailuentzako osagarri eta ordeko piezen txikizkako merkataritza.
654.5	Mota guztietako makinariaren txikizkako merkataritza (etxeko, bulegoko aparailuak, aparailu medikoak, ortopedikoak, optikoak eta fotografikoak ezik).
654.6	Mota guztietako ibilgailuentzako estalki, gurpiluztai eta aire-kameren txikizkako merkataritza, aipaturiko artikuluen handizkako merkataritzako jarduerak ezik.
659.3	Negatiboak eta bestelako argazki materialak hirugarrenek laborategian prozesatzeko bildu eta kopiak eta handitzeak entregatzeko 659.3 epigrafean matrikulatutako txikizkako merkataria.
659.4	Kanpo publizitateko zerbitzuagatik, garraio publikoko txartelak, telefono txartelak edo loteriak saltzeagatik 659.4 epigrafean matrikulatutako txikizkako merkataria.
662.2	Era guztietako artikuluen, elikagaiak eta edariak barne, txikizkako merkataritza, 661 taldean eta 662.1 epigrafean zehaztutako bestelako establezimenduetan egiten denean, loteria saltzeko zerbitzuagatik.
663.1	Txikizkako merkataritza, merkataritzako establezimendu finkoetatik kanpo, soil-soilik ore frijituak, estaldurakin edo betegarriekin nahiz gabe, patata frijituak, aperitiboak, fruitu lehorrak eta litxarrerak saltzen dituen, txokolata eta edari freskagarriak prestatzen dituen instalazioan bertan edo ibilgailuan txurroak eta patata frijituak egiteko baimenduta dagoena.
671.4	Bi sardexkako jatetxeak.
671.5	Sardexka bateko jatetxeak.
672.1, 2 eta 3	Kafetegia.
673.1	Kategoria bereziko kafe eta tabernak.
673.2	Bestelako kafe eta tabernak.
675	Kiosko, barraka eta antzeko lokaletan ematen diren zerbitzuak.
676	Txokolata, izozki eta hortxata dendetan ematen diren zerbitzuak.
681	Izar bateko edo biko hotel eta moteletako ostatu zerbitzua.
682	Hostal eta pentsioetako ostatu zerbitzua.
683	Ostatuetan eta apopilo etxeetan ostatu ematea.



JEZa	JARDUERA EKONOMIKOA ERRAZTUAN (BEZa)
691.1	Etzerako aparailu elektrikoaren konponketa.
691.2	Automobilaren, bizikletaren eta bestelako ibilgailuen konponketa.
691.9	Oinetakoaren konponketa.
691.9	Beste inon sailkatu gabeko bestelako kontsumo ondasunak (oinetakoaren konponketak, artelanak, altzariak, antzinatekoak eta musika tresnen zaharberritzea salbuetsita).
692	Industria makinen konponketa.
699	Beste inon sailkatu gabeko bestelako konponketak.
721.1 eta 3	Errepide bidezko hiriko garraio kolektiboa eta bidaiarien garraioa.
721.2	Autotaxi bidezko garraioa.
722	Errepide bidezko merkantzia garraioa.
751.5	Ibilgailuak koipeztatu eta garbitzea
757	Mudantza zerbitzuak.
849.5	Mezularitza eta mandataritzako garraioa, garraio bide propioekin bakarrik egiten denean jarduerak.
933.1	Lurreko, uretako eta aireko ibilgailuak gidatzen irakastea.
933.9	Irakaskuntzako beste jarduerak batzuk, hizkuntzak, ebaketa eta jantzigintza, mekanografia, takigrafia, azterketak, oposaketak prestatzea eta beste inon sailkatu gabeko antzeko jarduerak.
967.2	Kirola perfektionatzeko eskola eta zerbitzuak.
971.1	Jantziak, arropak eta etxeko arropa erabiliak tindatu, lehorrean garbitu, ikuzi eta lisatzea.
972.1	Emakume eta gizonezkoen ileapaindegi zerbitzuak
972.2	Apaindegiak.
973.3	Fotokopiagailuekin agiriaren kopia egiteko zerbitzuak.